



**UPV-EHUko ikasleak
ikerketa-subjektu**

UPV-EHUko ikasleak ikerketa-subjektu

Gomendioen dokumentua

IIEB – UPV/EHU

2012

Dokumentua hauek egin dute: NEKANE BALLUERKA (GIEB), CONCHI DE LA RUA (GIEB), RAMÓN BILBAO (GIEB), JOSÉ MANUEL AGUIRRE (GIEB), PATXI JUARISTI (GIEB), ISABEL LÓPEZ-ABADÍA (GIEB), ANDONI JUARISTI (GIEB), ALICIA RODRÍGUEZ (GIEB), JATSU AZKUE (GIEB), LOLA MORAGUES (GIEB), BEGOÑA SANZ (GIEB), IMANOL ZUBERO (GIEB), JULEN CASTELLANO (GIEB), M^a JESÚS MARCOS (GIEB/IIEBko Idazkari Teknikoa) eta DOLORES RUIZ (web Master)
ISABEL LÓPEZ-ABADÍAK idatzi eta koordinatu du

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Leioan, 2012ko azaroan

IIEB koadernoak

Ikerketa Errektoreordetza

Koordinatzailea: Isabel López-Abadía

CEID@ehu.es

Lan honek Creative Commons Reconocimiento-NoComercial-CompartirIgual
3.0 Unported lizentzia du.

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 978-84-XXXX-XXX-X

Lege gordailua: BI-XXX 2012

Fotokonposizioa: Rali, S.A.

Costa, 12-14 - 48010 Bilbao

Edukia

1. Atarikoa	00
2. Aldez aurreko kontuak	00
3. Gatazka-iturri berezi batzuk	00
3.1. Laginaren egokitasuna	00
3.2. Boluntariotasuna partaidetzan	00
3.2.1. Erakartzea	00
3.2.2. Laginaren hautapena:	00
3.2.3. Pizgarriak / konpentsazioa	00
3.2.4. Ordezko jarduerak	00
3.3. Baimen informatua	00
3.3.1. Ikerketa itsuak eta itsu-itsuak	00
3.3.2. Baimenaren ezeztatzea	00
3.4. Pribatutasuna eta isilpekotasuna	00
3.5. Arriskuak eta irabaziak haztatzea	00
3.6. Beste kontu batzuk	00
3.6.1. Ikasketa-espeditentea ikusteko aukera	00
3.6.2. Ikasteko denboraren erabilera	00
4. Ikasleekin egiten diren proiektu motak	00
4.1. Inguru akademikotik kanpoko proiektuak	00
4.2. Proiektuak unibertsitateko ikasleekin, talde zehatz baten lagin gisa harturik	00
4.3. Proiektuak ikasleen prestakuntzaren atal gisa	00
5. Etika batzordeak egin beharreko balorazioa	00
5.1. Ebaluatzeko xedean IIEBri igorri beharreko memoria ATAL berezi bat egoteko PROPOSAMENA, ikerketa proiektuetan UPV/EHUko ikasleak ikerketa-subjektu badira	00
6. Ohiko galderak	00
7. Erreferentziak	00

1. Atarikoa

Halako gogoeta eskatzen duen praktika da inolaz ere Unibertsitateko ikasleak Unibertsitateak berak bideratu behar dituen proiektuetako ikerketa-subjektutzat hartzea, kontuan hartzen baditugu praktika horrek sorraz litzakeen arazo etikoak eta metodologikoak. Gure inguruko arlo jakin batzuetan, hala nola Ekonomian, Psikologian, Hizkuntzalaritzan edota Filologian, ohiko jarduna dugu hori eta, han eta hemen, gai honen inguruko galderak eta zalantzak planteatzen hasiak dira dagoeneko IIEB edo Ikerketa eta Irakaskuntzako Etika Batzordearen aurrean. Horrexegatik erabaki du IIEBk, gai gatazkatsu batzuen aurrean argia egin nahirik, Unibertsitateko ikasleak beren esperimentuen subjektutzat hartu nahi dituzten **iker-tzaileentzat halako gomendio baliagarri sorta bat** proposatzea.

Beste unibertsitate batzuetan maiz azaldu den arazo baten aurrean gaudelarik, gai honi buruzko idatziak eta txostenak prestatu eta plazaratu dituzte haietako askotan, AEBkoetan bereziki, eta iradokizunak ez ezik betekizunak ere proposatu dituzte, ikasleak baliatuko dituzten proiektuak onartzerakoan kontuan hartuak izan daitezten. Gisa horretako dokumentuak landu dira halaber Espainiako unibertsitate batzuetan: Madrilgo Unibertsitate Autonomoa eta Bartzelonako Unibertsitatea ditugu horien adibide. Hala eta guztiz ere, gizakien gaineko ikerketarako gomendioak edota, besterik gabe, arauak jaso dira molde horretako txosten gehienetan, ikasleria espresuki gogoan hartu gabe eta arau orokorren zuzeneko aplikazioari bidea zabalduz. Praktikan, AEBko unibertsitateetan bideratzen direnen oso antzekoak dira gure inguruko goi hezkuntzako ikastetxeetan aintzat hartzen diren jokabide ereduak, halako araudi espezifikorik ez dagoenez laxoxeagoak diratekeen arren. Horixe gertatzen da, esate baterako, Psikologiako adar guztietan, hau da, molde honetako jarduerak aintzat maizenik hartzen diren ikasketetan, bideratzen diren ikerketa proiektuetan. Argi eta garbi ondoriozta dezakegu hau guztia unibertsitateek beren orri elektronikoen bidez zuzenean eskaintzen diguten informazioari erreparatu eta gero, ugari baitira haietan

ikasleei, Psikologia Fakultateko arloek bultzaturiko ikerketa proiektuetan parte hartu ahal izateko baldintzei buruz, eskaintzen zaizkien azalpenak, eta beste horrenbeste gertatuko zaigu UPV/EHUrekin lankidetzan maiz jarduten duten ikertzaileek IIEBri zuzenean ematen dioten informazioa aztertutakoan.

Ikasleekin bideraturiko ikerketa ikuspegi etikotik balizko arazoan sorzaitzat hartu duten unibertsitateek boluntariotasunaren bermearen inguruan kokatu dituzte batez ere gatazka-guneak, eta bereziki azpimarratu dute era berean ikasleen isilpekotasunak daukan garrantzia, irakasleek, aldi berean ikertzaile ere badirelarik, jokatzen duten paper bikoitza dela-eta. Irakasle-ikasle harreman hierarkikoak enplegu emaleen eta enplegatuen arteko lan-harremanen antza ere badu nolabait, haietan gertatzen den mendekotasunari bagagozkio behinik behin, eta giro akademikoetatik kanpo eginiko hainbat azterketatan balizko arazotzat hartu izan da talde hauekin bideraturiko ikerketa, hartan parte hartzera inor behartzerakoan eta haren karga eta onuren banaketa zehazterakoan bideraturiko jokabidearen zuzentasuna auzitan ezarriz. Unibertsitatearen kasuan, lan-harremanen antza duten kasuak hartu beharko lirатеke kontuan, ikerketa administrazio eta zerbitzuetako langileekin (AZL) edota instituzioarekin lan-erlazio edo antzeko lotura duen beste langile batzuekin lotu beharra denean.¹

Interesen arteko gatazkak saihesteko modu errazena litzateke irakasleei ikasleen gaineko ikerketak egitea debekatzea, baina horrela jokatuz berentzat interesgarriak edo onuragarriak gerta litezkeen proiektuetan libreki parte hartzeko aukerarik gabe gertatuko lirатеke ikasleak.

Unibertsitatearen irizpidea da bere partaideei aukerak ez mugatzea, baizik eta haien guztien eskubideak eta interesak hobekien babestuko

¹ «Kontu handiz aztertu behar da gazteak edota talde hierarkikoen menpekoak diren balizko ikerketa-subjektuen onarpenaren nolakotasuna, boluntario gisa parte hartzeko eman duten baimen hori lehenasunezko tratu baterako espektatiba oinarridun nahiz oinarrigabe baten edo, parte hartzeari uko egitekotan, ezespeneren edo errepresalien jomuga izatearen beldur arrazoidun nahiz arrazoigabe baten eraginpekoa izan baitaiteke. Talde horien adibide ditugu medikuntza edo erizaintzako ikasleak, eritegi edo laborategietako menpeko langileak, farmazia-konpainietako langileak eta indar armatuetao edo segurtasun indarretako kideak. Lanean ikertzaileengandik oso hurbil ari direlarik, ikerketa-subjektu gisa jarduteko beste gizarte-talde batzuk baino askoz maizago deituak izateko joera dute, eta ikerketaren karga eta onuren banaketa ez zuzena izan liteke jokabide honen emaitza» (CIOMS, 2002).

dituzten eta, aldi berean, garapen profesionala eta pertsonala bermatuko duten irtenbideak bilatzea. Halatan, zilegitzat jo da betiere ikasleak ikerketa-subjektutzat dituzketen proiektuak aintzat hartzea, prekauziozko neurri batzuk ere proposatzen diren aldi berean.

Molde honetako proiektuak gainbegiratzen ditu UPV/EHUko Gizakiekin lotutako Ikerketetarako Etika Batzordeak (GIEB) eta badu betiere babes-neurri osagarri batzuk proposatzeko ahala. Neurri horien bitartez aukera emango zaio betiere ikasleari ikerketan parte hartzeko edo ez hartzeko, berak nahi bezala, eta babesa eskainiko zaio, halaber, irakasle-ikasle erlazio hierarkikoaren ondorioz gerta litezkeen arriskuen aurrean.

GIEBk proiektu bakoitzaren aurrean egin litzakeen iradokizunak alde bat utzirik, unibertsitateko ikasleekin bideraturiko ikerketetan izan ohi diren arazoak aztertuko ditugu orain. Azterketa honen xedea da ikertzailerei halako gomendio orokorrak eskaintzea, proiektuak prestatzerakoan ikuspegi etikotik zuzen ari direlako ziurtasun gero eta handiagoan jarduteko moduan egon daitezen.

2. Aldez aurreko kontuak

Gizakiekin lotutako ikerketan bideratzen den araudi orokorra bete beharra dago unibertsitateko ikasleekin bideraturiko ikerketetan eta, bezaraz, oinarritzko erreferentzia izango da araudi hori kasu guztietan. Kanpoan utzi dira sendagaiekin bideraturiko saio klinikoak, araudi berezi baten arabera direlarik unibertsitatekoak ez diren erakunde batzuek ebaluatzen dituztelako.

Araudi orokorrari jarraiki eta kontuan harturik bereziki Ikerketa Biomedikorako Legea, 2007koa², oinarritzko betekizun batzuk hartu behar dira betiere kontuan, *hala nola Ikerketetarako Etika Batzordeak (IEB) unean uneko proiektua aurrez onartu beharra*, baldin eta ikasleen, haien laginen edo haien datuen gaineko prozedurak bideratu behar badira, eta ezinbestekoa izango da, besteak beste, baimen edo onarpen arrazoitu hori idatziz ematea.

Ez da dokumentu honen helburua betekizun nagusiak aztertzea, bai ordea, unibertsitateko ikasleez ari garelarik, gai batzuetan zailtasun bereziak ageri direla oroitaraztea.

² 2007ko uztailaren 14ko Legea, Ikerketa Biomedikoa arautzen duena.

3. Gatazka-iturri berezi batzuk

3.1. Laginaren egokitasuna

Proiektuaren beraren diseinu egokia, aintzat harturiko helburuetarako bide egokia zehaztuko duen diseinua, dugu proiektu bati ekiteko orduan, hau da, kontsiderazio etiko berezitan sartu aurretik, sortzen den aurreneko kezka. Diseinu horren barruan, berealdiko garrantzia du laginaren hautapenak, lagin horrek guztiz adierazgarria izan behar duelako, lorturiko emaitzak bestetara ere zabaltzeko modukoak izango badira.

Halatan, ezin ahantz dezakegu inolaz ere, ikerketa mota jakin baterako azterketa-talde egokia osa dezaketen arren, unibertsitateko ikasleak ez direla biztanleria osoaren lagin adierazgarria. Subjektu adin nagusiak dira, adin jakin batekoak, kultura eta prestakuntza maila berezi batekoak, arlo ekonomikoan askotan beren gain jarduteko gaitasunik ez dutenak, lanean eskarmenturik gabeak eta familia-kargarik ez dutenak, hau da, oso gizarte multzo berezia osatzen dute.

Zera da haien funtsezko abantaila, oso erraza dela haiengana heletzea, hainbat arrazoi direla medio:

- ikerketa-taldearengandik hurbil daude, eta zuzenean ezagutzen dute batzuetan.
- irakasleek sarbide erraza dute haien datuetara, beren ikasleak direlako; erraza dute, beraz, haiekin harremanetan jartzea.
- subjektu gaituak dira, kultura maila gorakoak, proiektuaren nondik norakoak ulertzeko –helburuak, prozedurak, eta abar– gehienek baino azalpen gutxiago behar dituztenak.
- elkarlanerako prest ageri dira maizenik, parte diren unibertsitate ingurutik datozen ekimenetan.
- irakaskuntza eta ikerketa prozedurekiko interesa ageri dute maiz.

Eskuratzen erraza izatea ezin da lagina hautatzeko irizpide bakar edo nagusizat onartu eta, egoera horretan, aztertu ere egin beharko luke ikertzaileak laginaren adierazgarritasun ezak ez ote lituzkeen lorturiko emaitzak baliorik gabe utziko. Unibertsitate batzuek argi eta garbi ohartarazi dute arrazoi aski izen dela hori proiektuak ezesteko eta bertan behera uzteko, eta hala lorturiko emaitzak argitaratzeko baimena ere ukatu izan dela zenbaitetan.

IEBek, eta haiekin batean UPV/EHUko GIEBk, garrantzi berezia ematen diote **zuzentasunari, lagina hautatzerakoan**³. Halatan, proiektu baten egokitasuna ebaluatzerakoan, bereziki eskatzen dute maiz proiektuan unibertsitateko ikasleek esku hartuko duten zehaztea eta erabaki hori behar bezala arrazoitzea.

3.2. Boluntariorotasuna partaidetzan

Hona hemen sortzen den arazo nagusia: **egiazko obligaziotik** edo **bestarik gabe sumaturiko obligaziotik**, hasi, eta **eragin okerrarekin**, hau da, irakasle-ikasle erlazio bertikalean gertatzen den botere-desorekak bidegabeki sorraraziriko eraginarekin buka. Irakaslearen **ederra edukitzen saiatzea** edo **balizko onura akademiko** bat izan daiteke ikasleen partaidetzarako arrazoi bakarra.

Ikasleak ikerketa proiektuetatik kanpo uztea ez da, bestalde, oztoporik gabeko jokabidea. Halatan, esan izan da proiektu batzuek ikerketa prozesuak hobekiago ulertzen laguntzen dutela eta, beraz, heziketa mailakoa ere badela haien helburua. Gainera, parte hartzearen boluntariorotasuna bermatzeko estuegi edo babesleegi jokaturik, ikerketan aritzeo erabakia libreki hartzeko bidea eragotz lekiok hartan egiaz esku hartu nahi lukeen ikasleari.

Halatan, guttiz garrantzitsua da ikasleen partaidetzan **boluntariorotasunaren berme sistema** bat sortzea, sarrera eragotzi gabe baina proiektuaren bitarteko faseetan arazo hori gogoan edukirik: proiektura erakartze garaietatik hartan esku hartzeko onarpena bertan behera gelditu daitekeen unera arteraino, kontuan harturik era berean pizgarrien eskaintza eta proiektuan esku hartzeko baimena lortzeko modua.

³ Ikerketaren onura eta kargen banaketak zuzena behar du izan komunitate bateko banakoen artean.

3.2.1. Erakartzea

*Proiektu baterako boluntarioen erakartze garaia dugu, seguruenik, xedetzat harturiko gizarte-taldearengana halako hertsadura edo eragin okerra⁴ errazen gerta daitekeen fasea. **Boluntarioak atzemateko prozedura** nolakoa, halakoa izango da partaide-gaiek erabakia hartzeko izango duten askatasuna. Funtsezkoa da, beraz, prozedura hori. Halatan, **zuzeneko atzemate sistemaz** jokatzuz gero, hau da, irakasleak boluntarioak gerokoan ebaluatu beharko duen ikasle-taldean lortu nahi baditu, hertsatu egingo luke nolabait, inolako zalantzarik gabe, proiektuan parte hartu nahi ez lukeen ikaslea, areago ordainetan **zuzeneko onura akademikoak** eskainiko balitu eta, batez ere, boluntarioen zerrenda ikasgelan agerian eta jendaurrean jasoko balitz. Halako beldurra ere sorraraziko luke irakasleak ikasleen artean, kalifikazioen garaian ondorio kaltegarriak pairatu beharko ote litzuzketen beldurra hain zuzen ere, halakorik gertatuko ez litzatekeela argi eta garbi adieraziko balu ere, eta ikasgelako guztien aurrean boluntarioen eta, zerrendan ez izanik, proiektuan parte hartu behar ez luketenen izenak agerian utzi behar horrek eragin argia izango luke ikasleen erabakian, presio hori taldeak zeharka eraginkoa izan arren.*

Beraz, gomendiozkoa da betiere irakasleek **zuzeneko atzemate** horren bidetik ez jotzea. Nahiago izaten da **zeharkako atzemate prozedura** bati ekitea, informazioa esku-orri, iragarki-taula eta abarren bitartez emanik. Proiektuaren izaera dela-eta, ikasgelako zuzeneko atzematea bide egokiagotzat jotzen bada, guztiz ziurtatu beharko da aurrez iker-tzaille-irakaslearen arloarekin **loturik ez dagoen hirugarren pertsona** bat arduratuko dela fase honetaz, eta proiektuan parte hartuko duten **ikasleen isilpekotasuna babesteko mekanismoak** abiarazi beharko dira parte hartuko ez dutenen aurrean, eta guztiz bermatuko da, era berean, irakasleak ez duela parte hartuko duten eta ez duten ikasleen identifikazio-datuetara sarbiderik izango, gutxienez haiekiko lotura akademikoa bukatu arte.

UPV/EHUko ikasleak ikerketa-subjektu gisa erabili behar badira, xedetzat harturiko gizarte-talde hau egokiena dela frogatu den kasuetan betiere, guztiz gomendatzen du GIEBk honako hau kontuan hartzea,

⁴ *Coertion or undue influence* jatorrizko testuan, ingelesez, dioen bezala.

irakasle-ikasle erlazio akademikoa dela-eta sor litezkeen boluntariotasun-arazoak saihesteko:

Ikasleen atzemateari dagokionez:

- Saihestu egin behar da ikasgelako zuzeneko atzematea, eta lehen-tasuna eduki behar dute beti zeharkako informazio-bitartekoek hala nola web orriek, taula eta pantailetak iragarkiek, esku-orriek eta abarrek. Kasu horietan, osorik aztertuko du GIEBk publizitatean bideratuko den testua eta eduki hori zabaltzeko aukeratu den formatua, informazioa helarazteko aukeratu den euskarrian partaide-zaren boluntariotasunaren gainean zalantzarik sor ez dadin eta erlazio akademikoaren eragina ahalik eta txikiena izan dadin.
- Beste atzemate mota bat bideratuko den kasuetan, zehaztu egingo dira ikertzaileek, irakasle-ikasle erlazioak eta taldearen balizko presioak izan lezaketen eragina murrizteko, hartuko dituzten neurriak (atzematea ikerketa-taldetik kanpo dagoen hirugarren pertsona baten kargu, datu pertsonalen bereizkuntza eta datuen babesa, eta abar).

3.2.2. *Laginaren hautapena*

Ez dira irakasle-ikertzaileak diharduen ikastetxe bereko ikasleak hautatu behar.

Proiektuaren ezaugarriak direla-eta, ikastetxe berekoak izan behar badute (ezinbestekoa denean, esate baterako, ikasle horiek gai jakin bati buruzko ezagutzen jabe izatea) egun edo etorkizunean ikertzailearekin eta beronen taldearekin lotura akademikorik ez duten eta izango ez duten ikasleak aukeratu behar dira (maila goragokoak izanik, irakasle-ikertzaileek ebaluatu behar izango ez dituzten ikasleak, adibidez).

Hala eta guztiz ere, kasu batzuetan irakaslearekin zuzeneko lotura akademikoa duten ikasleak hautatu behar dira ezinbestez. Hala gerta liteke, esate baterako, prestakuntzarako programan ikasleei gai jakin bati buruzko ikerketa-jardueretan parte hartzeko eskatu zaielarik beste arloetan egiten zaien proiektu-eskaintza behar bezain zabala ez denean, edo azterlanen funtsa irakasleak bere ikasleekin bideratuko lituzkeen irakaskuntza teknikak direnean. Kasu horietan, ikasleei **ahalegin maila bertsua** eskatzeaz gainera, eta proiektuan parte hartuta beteko lituzketenen **antzeko helburuak** lortzeko aukera emango lieketen **ordezko**

jarduerak eskaintzeaz gainera, **zeharka** edo **kanpoko hirugarren pertsona** baten bitartez bideratu beharra dago ikasleen **atzemate prozedura**, eta lehen mailako egiteko guztiz garrantzitsua da orduan parte hartzaileen isilpekotasunaren babesa, hala euren artean nola irakasleen aurrean.

3.2.3. *Pizgarriak / konpentsazioa*

Boluntariotasunarekin loturik maizenik ageri den arazoa dugu **pizgarrien eskaintza**, proiektu batean parte hartzeagatik.

Puntu honetan guztiz bete beharra dago gizakiekin lotutako ikerketen gaineko araudi orokorra. Ikerketa-subjektu gisa parte hartzea edo lagin eta datuen uztea boluntarioa izango da beti, eta altruismo eta elkar-tasun printzipioetan oinarritua.

Jardunbide nagusiak argi eta garbi dio *ezin dela* parte hartzailearen esku hartzeko erabaki librean eragina eduki lezakeen *ezein pizgarriaren erabilera onartu*. Zera da lortu nahi dena, ikerketa proiektuan parte hartzearen jatorrian inolako konpentsazio ekonomikorik edo, oso antzeko moduan, parte hartzea arrazoituko lukeen inolako onura garrantzitsurik ez egotea. Ikerketa etika aldetik zuzen baten oinarri oso sendoa da irizpide hori; izan ere, hala ez izatera, bestela jokatu balitz, gizarteko talde ahulenak bultzatzea litezke bereziki arriskuak lekartzaketen proiektuetan, hau da, pizgarri ekonomikorik edo beste mota bateko eragingarririk gabe onartuko ez lituzketen proiektuetan, parte hartzera.

Pizgarriak onartzen ez diren bezala, *onartu egiten da eta ohiko praktika da konpentsazioa, gastuen eta eraginiko eragozpenen ordainetan* (garraioa, lanegunen galtzea...). Horrelaxe jokatzen da, esate baterako, kontrol taldeekin (paziente osasuntsuekin) I. fasean bideratzen diren saio kimikoetan; izan ere, ikerketan xedetzat harturiko gizarte-taldea ez bezala –halako interesa eduki dezakete hauek proiektuan (balizko hobekuntza patologian, tratamendu eredu hobea...), hauek ez dute zuzeneko onurarik lortzeko aukerarik. Zaila da zenbaitetan konpentsazioaren eta pizgarriaren arteko bereizkuntza zehaztea; konpentsazioa ekonomikoa izaten da maiz eta, gastuen itzulera kalkulatzeko erraza den datu objektiboa bada ere, balioztatzen zaila den kontzeptu subjektiboa da «eraginiko eragozpenen ordaineko konpentsazioa». Parte hartzailea proiektuan

esku hartzeko arrazoia konpentsazio-pizgarri hori ez izatea hartzen da kontuan irizpide nagusi gisa. Halatan, *kasu bakoitzean ebaluatu beharra dago aurreikusitako konpentsazioa sorraraziko diren eragozpenen arabera*koa den ala ez, baina gutxi gora-behera adostuak dira dagoe-neko irizpide batzuk, ikerketa mota bakoitzaren arabera.

Unibertsitateko ikasleen kasuan, Psikologia eta Portaera Zientzien gaietan batez ere, halako kontsentsua dago ikerketa proiektuetan parte hartzeagatik eskaini beharreko ordainen inguruan, atzerriko unibertsitateetan, batez ere AEBkoetan, bideratu ohi duten praktikaren bide berberetik jo dutelako seguruenik.

Bi konpentsazio mota onartzen dira eskuarki:

- *Ekonomikoa*: 5 eta 10 euro bitartekoa, proiektuari emaniko ordu bakoitzaren ordainetan, inkestak eta molde desberdineko testak egin behar direnean. Oro har, arrisku txikiko probak dira hauek, baina denbora ez ezik, arreta, interesa eta lan saiaturia ere eskatzen dituzte.
- *Onura ekonomikoa*: Bi motatakoa izan daiteke:
 - *Kreditu orokorren eta espezifikoaren* lorpena (praktika edo beste mota bateko kredituak, ikasgaiaren berean). Kredituak ikasleak ikerketa proiektuan enplegatu dituen orduen arabera kalkulatuak dira, berriro ere.
 - *Hobaria ikasgaiaren ebaluazioan*, 0.1 eta 0.5 puntuen artekoa izan daitekeena. Gehienez 10 puntu lor daitezkeen kalifikazio baten, kasu hoberenean ezin gaindituko da 0.5 puntuko hobaria.

Onura akademikoa emaniko denboraren eta eginiko ahaleginaren arabera ebaluatzen da, eta arabera konpentsazioa zehaztu nahi izaten da beti. Unibertsitate batzuetan, Murtziako Unibertsitatean adibidez, bada aurrez ezarritako sistema bat; haren arabera, adibidez, laborategi-ikerketa berezietan (erregistro elektrofisiologikoak, begi-mugimenduak...) eginiko ordu batek laborategi konbentzionaletan (erantzun konduktualen neurketa) eginiko bi orduren eta inkesta edo galdeketetan eginiko lau orduren balioa du.

Moderazioa da betiere konpentsazio ekonomikoaren eta onura akademikoen kuantifikazioaren giltza, bitarteko horiek ikuspegi etikotik onargarriak izango badira eta proiektu batean parte hartzeko edo ez hartzeko arrazoi nagusia izango ez direla egiaz ziurtatuko bada.

Konpentsazio ekonomikoak ez dakar bestelako arazorik, era berean eskaini baitakieke ikasleei edo beste gizarte-talde mota batzuei, baina onura akademikoen inguruan gogoeta egin beharra dago bereziki eskaini aurretik, kasu bakoitzean egokiak diren ala ez zehazteko.

Zera adierazi nahi du *kreditu espezifikoen emateak edo ikasle baten kalifikazioa hobetzeak*, onura hori jaso duen ikasleak bere ikasgai jakin baten arabera prestakuntzaren aldeko jarduera bat bururatu duela. Halatan, onura akademiko mota hori *proiektuan parte hartzeak ikasleari **prestakuntzan onura argia ekarri dionean BAIZIK EZ** litzateke eman beharko*. Horixe genuke ikerketa-teknikekin loturiko ikasgaien edo, menderatu beharreko gaitasunen artean, ikerketaren bidez lorturiko trebetasunak aintzat hartzen dituzten ikasgaien kasua. Hala eta guztiz ere, ezin bidera daitezke onura akademiko horiek ikasleak proiektuetara erakartzeko, baldin eta proiektu horiek, oso interesgarriak izanagatik ere, ikasleek lortu beharreko **prestakuntzaren** edota **gaitasunen arabera helburuekin** zuzenean loturik ez badaude. Beste proiektu mota hauen kasuan, onargarria litzateke, aldiz, eraginiko eragozpenen ordaineko konpentsazio ekonomikoa.

3.2.4. **Ordezko jarduerak**

Onura akademikoek badute *beste arazo bat*. Izan ere, eskaini ahal izateak berak argi eta garbi adierazten digu ikertzaileak *ikaslearekiko lotura akademikoren bat duela, zuzenean nahiz zeharka*, eta lotura horren munta kalifikazioetan eragina eduki ahal izaterainoko mailakoa dela. Beraz, prekauzioa areagotu egin beharko da kasu horietan, boluntariotasuna bereziki babestu eta irakasle-ikertzaileak jokatzen duen paper bikoitzak ikaslearen libre erabakitzeke ahalmenaren gainean dukeen eragina ahalik eta murriztena izan dadin.

Kasu horietan, aukerak eskaini behar dira ikasleek **antzeko ahalegina eskatuz helburu bertsuei ekiten dizkieten** bestelako jardueretan parte harturik beste hainbesteko onura akademikoak erdietsi ahal izan ditzaten. Bestelako jardueraren bat, hala nola ikerketa proiektuetan parte hartu, gaiari buruz diharduen agerkari bateko artikulua gainera iruzkin bat idatzi, edo ikastaro batzuetara joan... halako proiektuan parte hartu izan ez dutelako kalteturik ez gertatzeko.

Zera iradoki dute, gainera, unibertsitate batzuetan, zuzeneko lotura akademikoren bat dagoenean, irakasleak ikasleak kalifikatzerakoan bere

proiektuetan parte hartu izanak edo ez izanak halako eraginik eduki ez dezan, ikasturteko kalifikazioak zehaztu arte irakasleak ez lukeela jakin beharko zein ikaslek hartu duten proiektu horietan parte. **Hirugarren pertsona** baten eskuetan egongo litzateke bitarte horretan zerranda (ikasleak atzemateko fasean egon den edo proben edo inkestean gauzatzeko prozesua gainbegiratu duen berbera izan liteke hirugarren pertsona hori). Ikasle eta irakasleen arteko erlazio akademikoaren aurrean «neutralizat» har daitekeen norbait da hirugarren pertsona hori, eta **irakasle-ikasle harremanak** ikertzailearen eta ikerturiko subjektuaren arteko **erlazioan eduki lezakeen eraginaren murriztearen berme** jardungo du betiere.

3.3. Baimen informatua

Gizakiekin lotutako ikerketaren alorreko (BI) baimen informatuaren gaineko arau orokorrak dira honetan bete beharrekoak. Unibertsitateko ikasleak eta, kasu batzuetan, ikertzailearen ikasleak ere badirelarik, informazioa eman beharra dute betiere proiektuaren arduradunek, eta idatziz eskatu beharra dute halaber parte hartzeko baimena, ikasleen onarpena.

Unibertsitateko ikasleak adin nagusiak dira, baina proiektuan adin txikiren bat parte hartzera gonbidatu nahi izanez gero, kasu hauetarako araudi berezia aplikatu beharko litzateke, gurasoen edo legezko ordezkarien baimena lortzeaz gainera.

3.3.1. *Ikerketa itsuak eta itsu-itsuak*

Arau orokorrak baimena beharreko eta behar adinako informazioirik gabe eman denean, hau da, erabakia datu garrantzitsu guztiak behar bezala kontuan hartu gabe hartu denean, baliozkoa ez dela adierazten badu ere, badira kasu berezi batzuk. Proiektu batzuetan, premia metodologiko batzuk direla medio, «engainua» bideratzen da edo ikerketaren aspekturen bat estaltzen da. Bakarra ez den arren, «placebo» dugu seguruenik bideratzen diren ikerketa mota horietan ezagunena.

Baimenaren aurreko informazioa berariaz osoa ez den ikerketa mota hori SALBUESPENA izango da betiere eta, halakoa izanik, ego-

kiro justifikatu beharko da betiere GIEBren aurrean, parte hartzailearen «eskubide bat urratzen» baita horrenbestez. Ikertzaileak kontu handiz neurtu beharko du une bakoitzeko arrisku berezia eta, ahal bezain las-ter, inolaz ere jakinaraziko dizkie parte hartzaileei ikerketaren helburuen inguruan aurrez ezagutarazi ez zizkien datu guztiak, ikerketaren emaitzak horregatik faltsutu gabe. Informazio osoa eman eta gero, parte hartzaileek (kasu honetan ikasleek) eskubidea izango dute ikerketa mota honetan jasoriko datuak erabiltzeko baimena emateko edo ez emateko.

3.3.2. **Baimenaren ezeztatzea**

Gizakiekin lotutako ikerketen gaineko arau orokorra da, parte hartze-ko baimena eman eta gero, subjektuari baimen hori proiektuko edozein unetan ezeztatzeko eskubidea onartzea, horretarako izan dituen arrazoiak azaldu beharrik gabe eta erabaki horren ondorioz inolako eragin negatiboren beldurrez egon beharrik gabe.

Ikasleen kasuan, bi faktore hartzen dira bereziki gogoan eskubide hori bermatzerakoan:

- *Taldearen presioa*: erraztu egin beharko litzateke nahi luketen guz-tien uztea, gainerako kideen aurreko isilpekotasuna bermatuz.
- *Konpentsazio akademikoaren balizko galera*: arazo honen aurrean, onura akademikoa ematea gomendatzen da bereziki, ikasleak proiektua utzi badu ere, haren aldetik fede gaiztoz jokatu ez izana frogatzen bada eta ikaslearen uztea proiektuaren hasieran gertatu ez bada. Datu hau argi eta garbi zehaztu beharko litzateke baimen informatuan.

3.4. **Pribatutasuna eta isilpekotasuna**

Honakoa da, borondatezko parte hartzearen kontuarekin batean, ikasleen parte hartzearekin lotutako arazo larriena⁵.

⁵ *Breach of confidentiality and invasion of privacy* jatorrizko testuan, ingelesez, dioen bezala.

Pribatutasuna

Nola boluntarioak atzemateko aldian hala probak egiteko garaian arazo larria izan daiteke pribatutasunaren inbasioaren gaia⁶, aipatu probak unibertsitateko instalazioetan eta eskola orduetan egiten badira. Kontuan eduki behar da talde itxi batez ari garela, parte hartzaileek elkar ezagutzen dutela, eta neurri bereziak hartu behar direla parte hartzaile bakar batek ere ez dezan besteen datuetan sarrerarik izan.

Eta aztergai den informazioa zenbat eta sentiberagoa izan orduan eta garrantzitsuagoa izango da kontu hau.

Informazioaren isilpekotasuna

Datu pertsonaletan sarrera duten ikerketa taldeko pertsona guztiek eta laguntzaileek aipatu gabeko isilpekotasun konpromisoa egiten dute bere. Gai sentiberen aurrean **espresuki eta idatziz** adierazten da **konpromiso** hau, baina horrela ez egiteak ez du esan nahi datuak ez ezagutarazteko betebeharrak profesional hori ez dagoenik.

Kasu jakin batzuetan sekretu profesionaletik haratago zabaltzen da betebeharrak, eta datuak DBLOren arabera⁷ babesteko jarrera aktiboa eskatzen du, babestu beharreko datuen arabera **sarrera mugatua edo ez hain mugatua** izango duten **fitxategiak** sortuz.

Gomendio batzuk egin daitezke proiektuaren faseei begira.

Erakartzea: kontu hau dagoeneko aipagai izan dugu «boluntariorotasunaren» atalean, eta berriro ere zeharka egitea gomendatzen da, ez ikasgelan bertan. Posta, iragarki-taulak, internet eta gisakoak baliatuz egin daitezke.

Informatu osteko baimen biltzea: ez da ikasgelan egin behar, zeharkako sistema baten bidez eta eskola orduetatik kanpora baizik.

Esate baterako, eskola orduetatik kanpora betiere, saileko irakaslea ez den hirugarren pertsona baten bulegotik pasa liteke ikaslea informa-

⁶ Pribatutasuna RAEren definizioaren arabera: bizitza pribatuaren esparrua, edozein esku sartzetatik babesteko eskubidea duena.

⁷ 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzkoa.

zioa biltzeko eta hirugarren pertsona horren zaintzapean geratuko litza-tekeen baimena izenpetzeko xedean. Une horretatik aurrera parte hartzaileari kode bat ematen bazaio, ikerlariak azterketaren datuak baizik ez ditu jasoko, ikaslearen datu pertsonaletatik berex.

Bereziki datu sentiberak biltzen baldin badira, neurriak hartu behar dira *probak egiteko unean*, izan ere, gutxienera eraman behar da parte hartzaile bakoitzak probak egiteko unean zuzenean begiratuta albokoak zer erantzuten duen edo gerora zer erantzun duen jakiteko aukera.

DBLOak babes maila handiko taldera biltzen dituenak eta diskriminazioa, estigmatizazio soziala eta kalte pertsonal nahiz familiarra eragin ditzaketenak dira gai sentiberak. Zerrenda irekia baita, besteak beste honako hauekin zerikusia dutenak dira **gai sentiberak**:

- Ideologia politikoa edo erlijiosoa
- Bizitza sexuala
- Legez kanpoko edo gizartearen aurkako jarduerak
- Alkoholaren eta drogen kontsumoa
- Buruko gaitzak edo arazo psikologiko larriak
- Diskriminazio jarrereri edo jazarpen aktibo nahiz pasiboari buruzko datuak
- Tratu txarrak edo gehiegikeria fisikoa, psikikoa edo sexuala, aktiboa nahiz pasiboa

Taldearen datuak biltzeko edo taldeko audio nahiz bideo grabazioak egiteko garaian, **soilik** baimena eman duten pertsonen irudiak eta hotsak agertzea ziurtatu behar da, eta gainerakoak desagerrarazteko edo ez identifikatzeko modua aurkitu behar da.

Probatetik lortutako datuak baliatzeko garaian, proiektuarentzat baliagarriak diren datuak eta datu pertsonalak bereiztea gomendatzen da (kode motaren baten bidez), lehenengoen baizik ez baitute izan behar ikerlariak aztertu beharrekoak, eta hirugarren pertsona baten esku (eskuarki informatu osteko baimena jaso duen pertsona izango da bera) geratu behar baitute parte hartzaileen identifikazio datuak.

Datu pertsonalak baliatzeko garaian baliteke fitxategi bat sortu behar izatea eta berau Datuak Babesteko Agentziari aurkeztu behar izatea; beraz, GIEBi kontsultatu beharko zaio kasu zehatzaren arabera.

3.5. Arriskuak eta irabaziak haztatzea

Arriskuak eta irabaziak haztatu behar dira ikerketa proiektu orotan, aurrenekoak gutxienera eramaten saiatuz eta besteak emendatzen saiatuz. Atal honetan gogora ekarri behar dugu arriskuaz edo pertsona baten gaineko prozedura inbaditzaile batez ari garenean arrisku fisikoaz gainera arrisku psikikoa ere kontuan hartzen dela. Hobe zehaztuta dago metodo inbaditzaile fisikoa, eta eskuarki osagileen jarduerekin lotzen da⁸. Hala eta guztiz ere ez da zehazten hain erraza metodo inbaditzaile psikikoa. Prozedura inbaditzaile bat aplikaturik gerta liteke ikerketa proiektu batek gutxienerako arrisku mailatik gorako arriskua izatea.

Hau berdin-berdin baloratzen da ikerketa mota orotan, ikasleek parte hartu ala ez, baina kontu hau atal honetan aipatzen dugu ikasleekin egiten diren ikerketa lanak sarri askotan jartzen direlako harremanetan Psikologia eta jokaera zientziekin.

Gai sentibera batzuek, esate baterako drogen kontsumoaren eta ikasleen arteko jazarpen jokabideen hautematea bezalako gaiak, **arrisku psikikoa gutxienerako mailatik gora** ebaluatzea eragin lezakete eta, beraz, neurri gehiago aplikatu behar izatea arriskua gutxienera eramateko.

Talde zaugarrietan gutxienerako arriskua eta zama eragiten duten ikerketa proiektuak BAIZIK EZ dira onartzen (Ikerketa Biomedikoari buruzko Legea). Hortaz, irakasleek burura eramaten dituzten proiektu jakin batzuen aurrean unibertsitateko ikasleak talde zaugarriak izan daitezkeela gogorarazi behar da.

Zenbait unibertsitatetan, esate baterako Johns Hopkins unibertsitatean, arriskua gutxienerako mailatik gorakoa denean ez dute **ikerlariaren mendeko ikasleen** parte hartzea onartzen, eta eskuarki ez eta graduondokoak ez diren ikasleena ere.

GIEBK arreta berezia eskaintzen dio arriskuaren ebaluazioari, eta beti ere da errazagoa gutxienerako arriskua dakarren eta datu pertsonalak bereizita dituen proiektua aurkeztea. Horrexegatik, hain zuzen ere, ikuspuntu fisikotik nahiz psikikotik prozedura inbaditzaileak erabiltzen dire-

⁸ Diagnostikoa egiteko xederarekin edo helburu terapeutiko batekin gorputza mediku teknika batzuek edo batez inbaditzen duen prozedura da inbaditzailea. Eskuarki larruzala ziztatzen edo hartan ebakiren bat egiten dute, edo tresnak sartzen dituzte gorputzaren baitara.

nean xehetasun osoz azaldu behar da prozedura zehatz hori baliatzeko beharra, eta zehatz azaldu behar dira arriskua maila onargarrira murrizteko xedean ikerketa taldeak aplikatuko dituen neurriak.

3.6. **Beste kontu batzuk**

3.6.3. ***Ikasketa-espeditentea ikusteko aukera***

Irakasleek beren arloko ikasleen ikasketa-espeditentetara bildutako datuak ikusteko aukera dute, datuok ezinbestekoak baitira irakasleen irakaskuntza lana egokiro egiteko. Hala eta guztiz ere, irakasleak, ikerketa lanaren esparruan, ez du datuotan sarrera izango, ikasleak espresuki baimena ematen ez badu. Datuok ezinbestekoak badira proiektuaren helburuak betetzeko, berariazko baimena eskatuko da, eta atal berezi bat gordeko da horretarako BI dokumentuan. Beren espeditenteen datuetan sarrera edukitzea nahi ez duten ikasleen parte hartzea onar dezakeen planteatu beharko du ikerlariak, eta halakoetan baimena emateko formularioan beste gelaxka bat egokitu beharko du ikasleek aipatu sarrerari edo erabilerari baimenik ez emateko aukera izan dezaten proiektutik baztertuta geratu behar izan gabe.

3.6.4. ***Ikasteko denboraren erabilera***

Burura eraman beharreko jarduera ikasle guztiak prestatzeko ez bada, eskola orduak ez dira ikerketa proiektuaren parte bakar bat ere burutzeko baliatuko, bestela hartan parte hartzera behartzen ditugu proiektuan esku hartu nahi ez duten ikasleak edo ikasteko denbora kentzen diegu.

4. Ikasleekin egiten diren proiektu motak

Proiektu bat diseinatzeko garaian sarri askotan jotzen dugu unibertsitateko jendearengana esperimentaziorako subjektuen laginak biltzeko xedean; hala eta guztiz ere, zalantzakoa da horretarako egokienak izatea. Lagin hauek aukeratzeko arrazoi bakarra edo nagusia unibertsitateko jendearengana iristeko erraztasuna baldin bada, litekeena da proiektuaren diseinuan akats bat egitea.

Irakaslea/ikerlaria vs ikaslea/ikerketa-subjektu harremanaren arabera hiru proiektu mota bereiz daitezke:

- Inguru akademikotik kanpoko proiektuak
- Proiektuak unibertsitateko ikasleekin, talde zehatz baten lagin gisa harturik
- Proiektuak ikasleen prestakuntzaren atal gisa

Sailkapen honek aukera ematen du gatazkak eragin ditzaketan alderdian handituz doan ordena ezartzeko, eta horiek kontuan eduki behar dira. Honakoak izan ohi dira: boluntarotasuna, pribatutasuna eta pizgarri akademikoak edota konpentsazioa.

4.1. Inguru akademikotik kanpoko proiektuak

Herritar guztiei edo herritarren artean talde jakin bati zabaldutako proiektuak dira, unibertsitateko ikasleak bazter uzten ez dituztenak. Esate baterako esklerosi anizkoitzari buruzko azterketa bat, ikasleak bazter uzten ez dituen baina berdin-berdin burutuko dena ikasleek izena eman ala ez.

Ez dago harreman akademikorik ikerlariaren eta parte hartzailearen artean.

GIEBrentzako proiektuaren ebaluaziorako formularioan nahikoa izango da UPV/EHUko ikasleek EZ dutela parte hartzen adieraztearekin.

4.2. Proiektuak unibertsitateko ikasleekin, talde zehatz baten lagin gisa harturik

Multzo honetara biltzen dira unibertsitateko ikasleak jomuga gisa baliatzen dituzten proiektuak. Proiektu hauek **ez diete zuzeneko onurarik** ekartzen ikasleei, eta **ez dute** ikasleak **prestatzeko helbururik**.

Bi motatakoak izan ohi dira, gehiago izan badaitezke ere:

- Ikaskuntzari buruzko ikerketa eta unibertsitateko beste jarduera bat
 - Ikasketa maila handia edo ezagutza zehatzak eskatzen dituen lagina
- Ikerlari/irakasle egiteko bikoitzaren ustezkoaren aurrean gerta gintezke.

Ezaugarriak

- EZ dio zuzenean ikasleari egiten mesede. Proiektuak ikerlariari edota gizarteari egiten dio mesede ezagutza bultzatzen duelako.
- Ikaslearentzako zuzeneko prestakuntza funtziorik ez dute betetzen, ez daude euren ikasketa planera jasoak, eta ez dira prestakuntza helburuen artera biltzen.
- Ezinbestean ez bada ere, baliteke ikerlariaren eta parte hartzailearen artean zuzeneko harreman akademikoa izatea.

Parte hartzeko borondate arazoak irakaslearen/ikerlariaren eta ikaslearen arteko zuzeneko harremanetan sortzen direnez eta gisa honetako proiektuetan zuzeneko harreman akademikoa beharrezkoa EZ denez (ez da ezinbestekoa ikaslea ikerlariaren ikaslea izatea), ikaslea den parte hartzailea saihestea da eman dezakegun gomendiorik errazena.

Kasu hauetan kontu handiz ibili beharra dago, zuzenean ikasleari ez baizik eta *a priori* ikerlariari eta oro har gizarteari mesede egiten dion borondatezko parte hartzea ziurtatu behar baita.

Dokumentu honetara jasotako gomendio guztiak izango dira aplikagarri, bereziki sinpleenak: esate baterako, ez dira Ikastetxeko ikasleak atzemango, eta prestakuntza maila jakin bat eduki behar badu ikasleak, ez da zuzeneko harreman akademikorik izango haren eta ikerlariaren artean (esate baterako, goi mailetako ikasleak erakarri edo atzeman...).

Proiektuaren helburuengatik edo diseinuagatik irakaslearekin zuzeneko lotura duten ikasleak baliatu behar badira, zehazki justifikatu behar-ko da. Gainera hurrengo ustezkoan (Proiektuak ikasleen prestakuntza- ren atal gisa) jasotako neurri guztiak aplikatu behar-ko dira pizgarri akademikoak eskaini behar EZ direla jakinik.

4.3. Proiektuak ikasleen prestakuntza- ren atal gisa

Multzo honetara biltzen dira unibertsitateko ikaslearen prestakuntza- ren arloan zuzeneko onurak bila dituzten proiektuak, eta horrexegatik planteatzen dira nahitaezko parte hartze gisa edo, pizgarri akademikoak tarteko, borondatezko parte hartze gisa.

la beti topatuko dugu ikerlari-irakasle egiteko bikoitzaren eta zuzene- ko harreman akademikoaren arteko ustezkoa.

Ezaugarriak
<ul style="list-style-type: none">– Proiektuak ikaslearentzako zuzeneko onura bila du prestakuntza- ren alorrean, eta ikasketa planera jasotzen da edo prestakuntza hel- buruen artera biltzen da.– Gisa honetan planteatu litezke<ul style="list-style-type: none">• parte hartzea nahitaezkoa izan liteke edo• parte hartzea borondatezkoa izan liteke, pizgarri akademikoekin baina.– la beti dago zuzeneko harreman akademikoa ikerlariaren eta parte hartzailearen artean, ikerlaria parte hartzailearen irakaslea izan ohi baita.

Hauexek dira neurri kopuru handiena hartzea eskatzen duten proiektuak, izan ere, boluntariotasunaren eta isilpekotasunaren alorretan arazoak sor daitezke ikerlari/irakaslearen eta parte hartzaile/ikaslearen arteko zuzeneko harremanaren ondorioz.

Kasu hauetan esku artean duzun txostenean adierazten diren gomendio **guztiak** izango dira aplikagarri (ikus 3. atala), batez ere bolunta- riasuna eta isilpekotasuna bermatzearekin zerikusia dutenak.

Boluntariotasuna

Zeharkako atzematea

- ez ikasgelan.
- ez eskola orduetan
- ez zuzenean irakasleak erakarria.

Hirugarren pertsonaren parte hartzea

- ikaslea atzemateko.
- BI eta balizko ukoa jasotzeko.
- datu pertsonalak gordetzeko eta kodetzeko.
- probak edo esperimentuak egitean ikaslearekin zuzeneko harremana izateko.

Ordezko jardueren eskaintza (izan ere ikerketan beti parte hartu behar da norberaren borondatez):

- ikasleari ahalegin eta denbora gehiago eskatzen ez badie.
- kredituetan nahiz puntuaketan onura akademiko bera eskaintzen badie.
- prestakuntzaren arloan gaitasun berak lortzea bila badu.

Pizgarriak / konpentsazioa

Prestakuntzaren alorreko ustezko onura tarteko, onura akademiko proportzionalak eskain daitezke, onura hauek borondatezko parte hartzean eragiteko bezain handiak ez badira.

- Egindako ahaleginarekin eta lortutako gaitasunekin bat datozen **kreditu akademikoak**
 - Zehatzak ikasketa planera eta irakasgaira bildutako gaitasunak izanez gero.
- **Kalifikazioa emendatzea**
 - Prestakuntza alorreko onurak zuzeneko harremana behar du izan irakasgaiarekin.

- 10era bitarteko kalifikazioan ez du 0,5 puntu baino hobari handiagoa izango, eta egindako ahaleginarekin eta lortutako gaitasunekin bat etorriko da.
- **Diruzko konpentsazioa** eragindako eragozpenengatik, beste edozein ikerketa proiektutan baliatzen diren irizpideen arabera, baina kontuan izanik «eragozpen» horiek haztatzeko garaian parte hartzailea prestakuntzaren alorrean onuraduna dela.

Isilpekotasuna

Taldearen aurrean pribatutasuna bermatuko duten mekanismoen inplementatzea

- Behar duen espazioan eta unean.
- Ez ikasgelan ez eta eskola orduetan ere.

Datuen isilpekotasuna ziurtatzeko mekanismo egokiak

- beharrezkoa den babes mailaren balorazio egokia (IIEBrekin kontsultatu).
- hala behar duenean eta irakaskuntzarako fitxategietatik berex, ikerketarako fitxategi zehatzen sorrera eta alta.

5. Etika batzordeak egin beharreko balorazioa

GIEBren aldez aurreko onarpena eskatzen dute gizakiak, haien laginak edo datuak xede dituzten ikerketa guztiek, ikerketa hauek UPV/EHUren instalazioetan egiten badira edo haren bitarteko materialak baliatzen badira, edo unibertsitateko langileek edo beren ardurapeko ikasleek bideratuak badira.

Honenbestez, ikerlariak / irakasleak edo beste edozeinek UPV/EHUren instalazioak edo bitartekoak baliatu nahi dituztenean unibertsitate honetako ikasleak ikerketa-subjektu hartuta, GIEBren BAIMENA JASO BEHARKO DU ALDEZ AURRETIK. Proiektuaren konplexutasunaren arabera, ikasleen ordezkarien parte hartzea iradokiko da erabakiak hartzeko batzordearen baitan.

Ebaluatzeko xedean igortzen denean, dokumentazio zehatza bidaliko da proiektuarekin batean. Era berean, proiektuaren memorian adierazitako proiektuei, unibertsitateko ikasleekin bururatu beharrekoiei, buruzko atala beteko da:

- UPV/EHUko ikasleekin burutu beharreko proiekturako **atala bete**
- Subjektuak **atzemateko iragarkiaren testu osoa** jasoko duen dokumentua
- **BI dokumentua**
- **Hirugarren pertsonaren lankidetzaren onartzen duen dokumentua**, hark bere egingo dituen egitekoak zehazturik

UPV/EHUko ikasleek parte hartu eta GIEBk onartutako proiektuak dagozkien Fakultateetako Dekanoei eta dagozkien arloko zuzendariei igorriko zaizkie haien berri izan dezaten. Honenbestez, proiektu jakin baten aurrean iruzkinen, erreklamazioen edo kexuren bat adierazi nahi duen edozein ikaslek zuzenean jo ahal izango du nola Etika Batzordera (IIEBko zuzendaritzaren bidez) hala haren Fakultateko Dekanotzara edo

irakaslearen Arlora. Eta hau BI dokumentura jaso beharko da parte hartzaile guztiek jakin dezaten.

5.4. Ebaluatzeko xedean IIEBri igorri beharreko memoria ATAL berezi bat egoteko PROPOSAMENA, ikerketa proiektuetan UPV/EHUko ikasleak ikerketa-subjektu badira

UPV/EHUko ikasleek parte hartu behar dute? Erantzuna baiezkoa bada:	BAI Zergatik?	EZ
Ikerlariaren Fakultate/Ikastegi berekoak izango dira?	BAI	EZ
Erantzuna baiezkoa bada:	Zergatik?	
Lotura akademikorik izango dute ikerketa taldearekin? Erantzuna baiezkoa bada:	BAI Zergatik? Zer lotura mota da?	EZ
Ikerlariak kalifikatuko du ikaslea? Boluntariorasuna babesteko neurri bereziak (ikaskuntzaren ikuspegitik ikerlariarekin loturak dituzten ikasleei begira) Zeharkako atzematea Hirugarren pertsonaren esku hartzea BI jasotzeko, datu pertsonalak gordetzeko eta kodetzeko eta probak nahiz esperimentuak egiteko garaian ikaslearekin zuzeneko harremana izateko	BAI. Deskribatu Deskribatu eta dokumentua osatu Egitekoak deskribatzen dituen dokumentua eta haiek burura eramateko konpromisoaren sinadura identifikatu eta eman	EZ
Diruzko konpentsazioa:	BAI. Deskribatu	EZ
Pizgarri akademikoak Ordezko jardueren eskaintza (pizgarri akademikoa baldin badago)	BAI. Deskribatu Deskribatu lortu beharreko gaitasunen antzekotasuna eta emandako denbora zehaztuz	EZ
Datuak biltzeko, probak egiteko eta baimena ezeztatzeko orduan taldearen aurrean pribatutasuna bermatzeko mekanismoen inplementazioa	Deskribatu	

Arrisku/onura zehatzaren balorazioa Gutxieneko arriskua Gutxieneko arrisku mailatik gorakoa: Metodo inbaditzailea: Gai «sentibera»: Beste bat	BAI BAI. Zehaztu BAI: Deskribatu BAI: Deskribatu BAI: Deskribatu	EZ EZ EZ EZ EZ
Arriskua gutxienera eramateko mekanismoak	Deskribatu	
Datuen isilpeketasuna ziurtatzeko mekanismo egokiak Beharrezko babes mailaren balorazioa Ikerketarako fitxategi zehatzen sorrera eta alta		

6. Ohiko galderak

Unibertsitateko ikaslea al da nire azterketarako biztanle-lagin ego-kiena? (laginaren egokitasuna)

Lagin hau aukeratzeko arrazoi bakarra edo nagusia unibertsitateko jendearengana iristeko erraztasuna baldin bada, litekeena da proiektua-ren diseinuan akats bat egitea. Azter ezazu berriro ere kontu hau aurrera egin baino lehen, baliteke lagin hau egokia ez izatea.

Zer eduki behar dut kontuan ikerketa-subjektuak ikasleak baldin badira?

Hasteko, 4. atalean zehaztutako hiru motetako batean sailka ezazu proiektua, irakasle/ikerlariaren eta ikergai den ikasle/subjektuaren arteko harremanaren arabera.

Ondoren alderdi gatazkatsu nagusien aurrean egindako gomendioak bete, bereziki jarraian adierazten diren kontuen inguruan:

- Erakartzea/boluntariorotasuna
- Pizgarri akademikoak/konpentsazioa
- Eskola orduen erabilera/Ordezko jarduerak
- Pribatutasuna/isilpekotasuna

Bestela jardun behar ote dut nire proiektua herritarrei zuzendua izan arren UPV/EHUko ikasleren batek «izena ematen» badu?

Herritar guztiei edo herritarren artean talde jakin bati zabaldutako proiektua denez, unibertsitateko ikasleak bazter uzten ez dituen proiektua denez, esparru akademikotik kanpoko proiektutzat hartuko da (lehenengo mota), eta beraz, ez da ezer berezirik adierazi beharrik.

Aurreko kasuan gertatuz gero, adierazi behar al dut nire proiektuaren memorian ikergaien artean UPV/EHUko ikasleak egon daitezkeela?

Ez da beharrezkoa, nahikoa izango da GIEBrentzako proiektuaren ebaluaziorako formularioan UPV/EHUko ikasleek EZ dutela parte hartzen adieraztearekin.

Nire proiektuan unibertsitateko ikasleak behar baditut biztanleria zehatzaren lagin gisa, zer eduki behar dut kontuan hura diseinatze-ko garaian?

- Ez itzazu Fakultate edo Ikastegi bereko ikasleak atzeman.
- Saihestezina baldin bada ikasketa edo prestakuntza maila zehatz bat behar dutelako izan, ikerlariekin zuzeneko harreman akademikorik ez duten eta izango ez duten ikasleak atzeman itzazu, esate baterako goi mailako ikasleak edo ordurako irakasgai a amaitua dutenak.
- Proiektuaren helburuengatik edo diseinuagatik ikerketa taldearekin zuzeneko lotura duten ikasleak baliatu behar badira, zehazki justifikatu beharko da. Gainera «proiektuak ikaslearen prestakuntzaren atal gisa» atalean (4.3) jasotako neurri guztiak aplikatu beharko dira pizgarri akademikoak eskaini behar EZ direla jakinik.
- EZ ezazu pizgarri akademikorik (kredituak, notak igo eta beste) eskaini, ikaslearentzako ez baitago prestakuntza alorreko onurarik.
- Eragindako eragozpenen ordainetan diruzko konpentsazio bat eskain liteke ikasleen parte hartzea eskatzen ez duen beste edozein proiektu motatan baliatzen den irizpide berdina aplikaturik. Proiektuari emandako ordu bakoitzeko 5 eta 10 euro bitartean dago konpentsazioa lana inkestak egitea edo mota askotako *testak* eta gisa-koak egitea baldin bada, proba hauek eskuarki arrisku txikikoak baitira baina denbora, kontzentrazioa eta arreta eskatzen baitituzte.

Beren prestakuntzaren atala baita, UPV/EHUko nire ikasleak parte hartu behar duten ikerketa proiektu bat ari naiz diseinatzen. Zer neurri hartu behar ditut?

Hasteko, kontuan eduki ezazu betiere borondatezkoa izan BEHAR duela proiektuan parte hartzeko aukera. Dokumentu honetan adierazita-ko gomendio guztiak dira aplikagarri kasu honetan.

- Zeharka atzeman itzazu: erabil itzazu iragarkiak, ez erabili ikasgela, ez eskola ordurik, ez gisakorik.
- Hirugarren pertsonaren bat baliatu ezazu ikaslearekin zuzeneko harremana izateko: baimena jasotzeko; datu pertsonalak gordetzeko eta kodetzeko eta probak nahiz esperimenduak egiteko.
- Parte hartzen ez duten ikasleei ahalegin eta denbora berdina eskatzen duten, kredituetan nahiz puntuaketetan onura akademiko berdinak eskaintzen dituzten eta prestakuntzaren alorrean gaitasun berdinak bila dituzten ordezeko jarduerak eskaini.
- Bermatu ezazu ikasle bakoitzaren pribatutasuna besteen aurrean: datuen bilketan, probak egitean eta baimenari balizko ukoa ematean.
- **Datuen babesa** ziurtatzeko mekanismo egokiak ezar itzazu: ego-kiro baloratu ezazu beharrezkoa den babes maila, eta hala behar duenean ikerketarako fitxategi zehatzak sortu eta alta eman haiei.

Ikerketarako Etika Batzordearen eskutik pasa behar al du nire proiektuak onartua izan dadin?

Bai. Dagokion Ikerketarako Etika Batzordeak onartu behar ditu ikasleekin egiten diren proiektu guztiak, gizakiak ikertzen diren kasu guztietan bezala.

Ikerketa egilea UPV/EHUko irakaslea baldin bada edo UPV/EHUrekin loturaren bat baldin badu edo azterketa Unibertsitatearen instalazioetan egin behar bada, GIEB da dagokion batzordea.

Eta soilik inkestak egitean baldin badatza nire proiektua? Eta prozedura inbaditzailek erabiltzen ez badut? Eta datu izengabeak baldin badira?

Printzipioz GUZTIEK egon behar dute GIEBk onartuta. Zalantzaren bat baldin baduzu, kontsulta ezazu Idazkari Teknikariarekin.

Gizakiak, haien laginak edota datu pertsonalak xede dituzten proiektu guztiek baimenduta behar dute egon.

Segur asko batzordearen onarpena beharko duzula pentsatu behar duzu. Zure proiektuaren ezaugarriengatik beharrezkoa izango ez balitz, batzordeak berak jakinaraziko dizu, idatziz, aipatu betebeharrak betetze-rik salbuetsita dagoela zure proiektua. Honenbestez zalantzak uxatu eta lasaiago geratu zinateke araudia egokiro betetzen ari zarela jakinik.

Zer dokumentu aurkeztu behar dut GIEBren ebaluazioa eskatzean?

Ebaluatzeko xedean igortzen duzunean, dokumentazio zehatza bidaliko duzu proiektuarekin batean. Era berean, proiektuaren memoriako «proiektuak unibertsitateko ikasleekin» atala bete behar duzu:

- UPV/EHUko ikasleekin burutu beharreko proiekturako atala bete.
- Subjektuak atzemateko iragarkiaren testu osoa jasoko duen dokumentua.
- BI dokumentua.
- Hirugarren pertsonaren lankidetzat onartzen duen dokumentua, hark bere egingo dituen egitekoak zehazturik.

UPV/EHUko ikasleek parte hartu eta GIEBk onartutako proiektuak dagozkien Fakultateetako edo Ikastegietako Dekanoei edo Zuzendariei eta dagozkien Arloko zuzendariei igorriko zaizkie haien berri izan dezaten. Honenbestez, proiektu jakin baten aurrean iruzkinen, erreklamazioen edo kexuren bat adierazi nahi duen edozein ikaslek zuzenean jo ahal izango du nola Etika Batzordera, IIEBko zuzendaritzaren bidez, hala haren Fakultateko Dekanotzara edo irakaslearen Arlora. Eta hau *baimenaren dokumentura jaso beharko da* parte hartzaile guztiek jakin dezaten.

7. Erreferentziak

1. CIOMS. Nazioarteko jarraibide etikoak gizakiekin ikerkuntza biomedikoak egiteko. Medikuntza Zientzien Nazioarteko Erakundeen Batzordeak (CIOMS) Osasunerako Mundu Erakundearekin elkarlanean prestatuak. Geneva 2002. URL: <http://www.paho.org/Spanish/BIO/CIOMS.pdf>. Kontsulta egin zen eguna: 2012/04/09.
2. 2007ko Ikerketa Biomedikoari buruzko Legea (14/2007 Legea, uztailaren 3koa, Ikerketa Biomedikoari buruzkoa).
3. Guidebook for Institutional Review Boards del Office for Human research Protection. (s.f.). URL: http://www.hhs.gov/ohrp/archive/irb/irb_guidebook.htm. Kontsulta egin zen eguna: 2012/04/02.
4. Kingston University of London. *Ethics: Guidance and Procedures for undertaking research involving human subjects*. Policies and Regulations. London, January 2011. URL: <http://www.kingston.ac.uk/aboutkingstonuniversity/howtheuniversityworks/policiesandregulations/documents/Ethics.pdf> . Kontsulta egin zen eguna: 2012/04/12.
5. Office for Human Research Protections (OHRP). *Categories of Research*. URL: <http://www.hhs.gov/ohrp/policy/expedited98.html>. Kontsulta egin zen eguna: 2012/04/09
6. Ruth W. Grant and Jeremy Sugarman. *Ethics in Human Subjects Research: Do Incentives Matter?*. Journal of Medicine and Philosophy, 29(6): 717–738, 2004.
7. Guidance for Enrolling K-12 Students as Research Subjects <http://www.research.uky.edu/ori/ORIForms/79-K-12-Students-as-Subjects-guidance.pdf>
8. Human Research Protection Policy: Participation of Students and Employees in Research Marquette University 2007 <http://www.marquette.edu/researchcompliance/human/documents/HRPolicy98.102-StudentsEmployees.pdf>
9. Policy concerning the recruitment and enrollment of students in research involving human subjects. Johns Hopkins University <http://engineering.jhu.edu/include/content/pdf/adr/Student-Participation.pdf>

10. Psychology 1100. Participation in psychological experiments. URL: cliff.uconn.edu/1100%20Memo_fall2009.doc
11. Risk Assessment Guide The complete Human Subjects rules and guidelines can be found on the Web at: www.societyforscience.org/isef/document/
12. «Madrilgo Unibertsitate Autonomoko ikasle-ikergaien parte hartzearen alderdi etikoei» buruzko dokumentua 2008 <http://www.uam.es/otros/ceiuam/aspectetic.htm>
13. Bartzelonako Unibertsitateko Bioetika Batzordeak ikerketa proiektuetan ikasleen parte hartzeari buruz argitaratutako jakinarazpena. http://www.ub.edu/rceue/archivos/Comunicado_estudiantes.pdf
14. Ikerkuntza psikologikoa sustatzeko programa. Psikologia Fakultatea. Murtziako Unibertsitatea. <http://www.um.es/psicoexperimentos/>

